

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4815

1600/2020 EBAZPENA, urriaren 7koa, Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Alexander Jon Aguinaga Alesanco jauna aldi baterako izendatzen da Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Buru (Erradiologia Baskular eta Interbentzionistako Atala), lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.

1439/2019, irailaren 11ko Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESiko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Buru (Erradiologia Baskular eta Interbentzionistako Atala) lanpostua lehiaketaren bidez betetzeko.

Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Alexander Jon Aguinaga Alesanco jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESiko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Buru (Erradiologia Baskular eta Interbentzionistako Atala).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Alexander Jon Aguinaga Alesanco jauna Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESiko Erradiodiagnostikoko Atal Sanitarioko Buru (Erradiologia Baskular eta Interbentzionistako Atala) izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Aldi baterako izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hirugarren arau komunean xedatutakoarekin bat etorriz, eta data honetatik aurrera ondorioak izango ditu: 2020ko urriaren 13a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitutakoan lanpostua utziko du, ez bada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango dute, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinaraztea.

2020ko azaroaren 12a, osteguna

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, Ebazpen hau EHAA n argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Barakaldo, 2020ko urriaren 7a.

Lanpostu hutsagatik, zuzendari gerentearen urtarrilaren 1eko 3/2015 Ebazpen bidez.

Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESIko zuzendari medikoa,
EDURNE OMAETXEBARRIA LEGARRA.